

ESKOLA HIZTUN BILA¹

Mikel Zalbide

SARRERA: ZER DUGU GOGOETA-GAI?

Euskaltzaleen amets eta fruitu da, inorena izatekotan, XX. mendeko euskal irakaskuntza. Euskara galtzen ari zela ikusirik, galtze hori ezinbestekoa (Unamunoren "bere baitakoa") ez zela uste zuten eta hiltzen utzi ordez bizirik eusten eta indarberritzen saiatu nahi zuten herritarrek ernarazia da, alegia, euskal eskola. Oinarri eta helburu didaktiko-pedagogikorik ez zaio inoiz eskola-molde horri falta izan: gai horretaz kezkatzeaz gainera konponbide operatiboak eskaintzeko orduan aitzindari eta bide-urratzaile izatera ere iritsi izan da, aitzitik, behin baino gehiagotan. Pedagogiazko ardura eta didaktikazko lorpen horiek ezertan gutxietsi gabe ere egia da, ordea, bestelako gogoeta-modu eta amets-bide batek elkarrenganatu duela euskaldun-jende xehea, mende luze batez, euskarazko irakaskuntzaren inguruan: galzorian ikusten zuen hizkuntzari bizi berri bat eman nahiak eramanez dituzten herritarrok, lehenik eta behin, irakasmunduaz kezkatu eta hezkuntza-molde berriak bilatzera.

Ondoko arrazoiketa honen antzekoa-edo izan da itxuraz, xehetasunak xehetasun, euskaldun-jendearen gogoeta-bide hori:

¹ Artikulu honek "Eskola hiztun bila" (Eusko Jaurlaritza, 1991) izeneko liburuaren lehen bi kapituluak biltzen ditu.

- "eskola bidez sartu digute erdara: euskara ahazteraino edo hitz-etorria arrunt moteltzeraino sartu ere. Eskola horrek arras ele-erasanik uzteraino erdaldundu ditu, prezeski, gure eskola-umeak. Gero eta herritar gehiago, hori dela-eta, erdaraz (nagusiki erdaraz, erdara hutsean, ...) ari da";
- "gure eskolak izan ditzagunean, erdara zeharo baztertu gabe ere bere lehengo lekura eta gradura ekarriko dugu euskara. Zabal ditzagun beraz euskarazko eskolak eta belaunaldi berriek, beren burua euskalduntzeaz edo ama-hizkuntzan ongi alfabetatzeaz bat, euskal mintzo gozoaz beteko dituzte berriro, euskaldun guztion pozgarri, gure herriko bazterrak. Kale eta zelai, erdal eskolaz galdutako eremuak berriro irabaziko ditugu euskal eskolen laguntzaz".

Zabaldu dira euskarazko eskolak: orain hogeitahogeita bost urte inork gutxi amets egingo zukeen neurrian zabaldu ere, hasierako ikasmailei dagokienez bederen. Ikasi ere ikasten ari dira eskola-ume gehienak, urtea joan eta urtea etorri, euskaraz irakurtzen, idazten eta hitz egiten: ebaluazio-lan sendoenek ez dute, ikaste-maila horretaz, zalantza-bide handirik uzten. Gure bazterrak ez dirudi ordea, inondik ere, maila berean euskal mintzoaz jазten ari direnik. Espero zenetik benetan lortzen ari dena tarte handia, osin sakona, antzematen da aitzitik. Euskaltzale-jendea kezkatzen hasi da: zer ari da gure euskal irakaskuntzarekin gertatzen ?

Txikitatik gaztarora A ereduan ibili diren (eta dabilzan) neska-mutilek ez dute normalean euskaraz egiten: ez beren artean, eta ez beste herritarrekin. Arrazoi sendo bategatik, bistan da: ez dira euskaraz egiteko gai. Ulermen-kontuan ez da

inondik ere gutxiestekoa A ereduko ikasleok jadanik lortu dutena. Euskarazko hainbat azalpen arrunt, argi eta ongi kontestualizatu entenditzeko kapaz dira. Badirudi, gainera, entzutezko ulermen-maila hori gero eta jasoagoa dutela. Hortik aurrerako hizkuntz trebetasunetan ahul, aski ahul ageri dira ordea A ereduko neska-mutilok. Ikasleon artean ere ez dira noski salbuespen nabarmenak falta, eta badira tartean euskaraz hitz egiten ongi dakitenak: etxetik euskaldun izanik A ereduan dabilzan ikasle "galdu" bakanak dira, itxuraz, horrelako gehienak. Multzo txiki eta markatu hori albo batera uzten bada, ordea, A ereduko ikasle gehien-gehien gaitasun-mailak ez du euskaraz, ahoz zein idatziz, jarduteko aukera handirik eskaintzen. Gehienera ere testuinguru jakin batzutan, ezinbestean-edo, lau gauza xume esatera iristen zaizkizu, erdi-euskara erdi-erdarazko mintzamolde bihurri eta gordin batean: ez ordea, urrundik ere, hori eta horrenbestez euskaraz hizketan hasi eta, hartutako hariari lotuz, hitz-aspertu bat egitera.

B ereduko ikasleen kasuan badakigu, bide batetik eta bestetik, euskara-mailari dagokionez behintzat aski bestelako egoeran daudela: ikasle hauetariko askok, ebaluazio-neurketen arabera gero eta ikasle gehiagok, euskararen jakite-maila jaso samarra du. Ulermenaz gainera euskaraz idatzi eta hitz egiteko gaitasuna ere ez da alegia, ikasleon artean, A ereduan bezain ahul eta murrizta. Gaitasun-maila horri dagokionez A eredutik baino Dtik hurbilago daudeke egon, oraindainoko ebaluazio-emaizten arabera, ikasleok. Horren beharrean gertatzen direnean badakite, ondorioz, euskaraz egiten ere: irakaslearekin, konkretuki, badirudi gero eta errazago jarduten dutela. Euskal esamolde jator askorik beren ezpain-lumetatik nekez jasoko bada ere badakite B ereduko eskola-umeok

mintzajardun arruntean adierazi behar izaten duten hainbat gogo-asmo, uste eta galdera-agindu euskaldun gehienek entenditzeko moduan azaltzen. Beren artean erdaraz egiten dute ordea, normalean, neska-mutilok. Errazago gertatzen zaielako, besteak beste. Etxetik erdaldun diren haurrak euskalduntzeko (euskaldun sendo bihurtzeko) ikasmolde elebidun honek ere ez du ondorioz, oraindaino ikusitakoaren arabera, ikasleon luze-zabaleko mintzaldaketa eragiten: ez, bederen, lagun-giroko harremanetan. A eredukoak baino ondotoz hurbilago daude neska-mutilok euskaraz jardungo lukeen belaunaldi berriaren amets-eredu hartatik, baina erdaraz ari dira gehienetan.

D eredua dugu, azkenik, aztergai. "Hauek behintzat bai", esan nahi izango du seguruenik gaur eguneko eskola-munduaren berri zuzenagirik ez duen euskaltzaleak. "Hauek behintzat euskaraz egingo ahal dute, barra-barra egin ere. Ikasle hauetariko asko etxetik euskaldun izanik, irakasle euskaldunekin ikasketa gehienak euskaraz egiten ari direnak, berauen artean behintzat segurtaturik behar genuke, inon behar-eta, euskarazko mintzajardun zabal, aberats eta bizia". Hala al da?

Ezetzik ezin zaio euskaltzale horri esan: multzo konplutua osatzen dute, izan ere, ikasgelatik kanpora, eskola-alorrean eta gainerako gizarte-bizitzan, nagusiki edo huts-hutsean euskaraz ari diren D ereduko neska-mutil eta gazteek. Mintzajardunaren belaunez belauneko katea ez da, ikasle-talde horietan, eten. Ez hori bakarrik: oraindainoko euskal belaunaldi gehien-gehienak ez bezala gai eta trebe dira gazteok euskara ahoz bezala idatziz erabiltzeko; ohizko mintzagai arruntetatik kanpora egungo bizimolde berriak, bere oinarri ekonoteknikoak

bereziki, eskatzen dituen terminologia, esamolde eta hizpideak ere aski neurri airosoan menperatzen dituzte ikasle hauek. Gaur ez da hain nobedade handia Ruffiniren teoremaz, zabalkuntza termikoaz edo ugaztunen ugaltze-aparatuaz zientzi arauzko definizio eta azalpenak ematen dakiten neska-mutilak aurkitzea.

Baietz ere ezin erantzun daiteke ordea. Ezin esan liteke alegia, ez eta hurrik eman ere, D ereduko ikasle guztiak edo gehienak, 14-15 urte-inguru horretara iristean, beren bizi-esparru gehienetako pentsakizunak euskaraz adierazteko gai direnik; are gutxiago, jakina, gai horiek normalean euskaraz adierazten dituztenik. Adibide gehiegi dugu aitzitik, ezker-eskuin begiratzen hasi orduko, justu kontrakoa adierazten digunik. Eskolan zortzi, hamar edo hamalau urtez jakintza-gai guztiak edo gehien-gehienak euskaraz ikasten jardun ondoren, eta askotan etxetik partez edo osoz euskaldun izanik, erdaraz ari dira gazteok beren artean: eskolako ikaskideekin, auzoko edo kirol-alorreko lagunekin eta are, zenbaitetan, anai-arrebekin. Jokamoldez arras aldatzen ez badute, hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipen-katea eteteko arrisku bizian dago neska-mutil horien artean: norengan eta, lehen begiratu batean, justu alderantziz beharko zukeela pentsa genezakeen (eta pentsatzen genuen) horiengan.

Ez da harritzekoa, ondorioz, euskaltzale fin-fina ezezik euskal eskola-munduarekin zuzenean edo zeharka harremana duen beste hainbat jende ere kezkatzen eta are etsitzen hasi baldin bada. Honelakorik ez zen espero. Irakasle bat baino gehiago, konkretuki, galdezka hasi da: zertan huts egiten du irakas-sistemak?; konponbiderik ba al du arazoak?; baiezkotan, nondik datorke konponbidea?.

Liburuxka honek ez du galdera sakon horiei luze-zabaleko erantzuna emateko asmorik. Nahita ere ezin izango genuke bere prestatzaileok halakorik egin: ez gara horretarako gai sentitzen. Ezjakin hutsean ere ez gaude ordea: hainbat irakaslek eta ikastetxek aurrera daraman ekintzabideak gauza bat baino gehiago agertua digu izan ere, azken urteotan, eskola-umeen hizkuntz erabilerari buruz; atzerriko zenbait jakitunek ere, hezkuntza elebidunaren nahiz hizkuntz soziologiaren ikuspegitik, balio-indar handiko irizpide bat baino gehiago eskuratua digu gai hauekin lanbidezko harreman zuzena dugun gehienoi. Korapiloa askatzeko jardupidea eskuera dugula uste izatea bezain inozoa litzateke, hori dela-eta, gaiaz ezer ez dakigula aldarrikatzea eta bestek, oro-jakintzaren gaindegietatik Euskal herriratu, gauzak nola diren esplikatu digun egun handiaren zain egon nahi izatea. Gaia istilutsua da noski, eta kontu handiz tratatzekoa: auzi-mauzion eztabaidak errazegi ekar dezake berekin, bistan da, zenbaiten soineko-urratzea eta, emaitza-ondorio biribilen izenean, elebitasun-kontu honetan zirt edo zarteko bide-aldaketan hasteko irrika. Ez dirudi ordea, hizkuntz normalkuntzaren beste hainbat alorretan bezala, honetan ere gauetik goizerako aldaketak ez posible eta ez komenigarri direnik. Badirudi, aldiz, gai honi buruzko gogoeta-lan serio bati heltzeko ordua iritsi dela: banakako irakasleen artean, ikastetxe mailan, hezkuntza-administrazioko teknikarien baitan, Udaletan eta Foru Aldundietan eskola-munduarekin zerikusia duten administrazio-ataletan eta, nola ez, hezkuntzako eta hizkuntz plangintzaren alorreko goi-arduradun eta herri-agintarien erabakimen-esparruetan.

Hartarako lagungarri xumea izan nahi du, bere soil-biluzian, eskuartean duzun liburuxka honek. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara

Zerbitzuak azken urte t'erdi honetan eskola-giroko hizkuntz erabileraz egina duen bilketa-lanaren eta lehen sistematizazio-ahalegin baten berri eman nahi da, funtsean, argitalpen honen bidez.

I. HASI-MASIAK: ESKOLA-GIROKO HIZKUNTZ ERABILERAN ERAGITEN DUTEN FAKTOREEN LEHEN AZALPEN-SAIOA

Euskal eskolak, orain arte esan dugunaren arabera, badirudi hasieran uste zen baino neurri eskasagoan eragiten edota segurtatzen duela eskola-umeen euskarazko mintzajarduna. Hori horrela zergatik den azaltzeko orduan badirudi ondoko faktore hauek bederen kontuan hartu behar liratekeela:

- eskolaren ordutegi mugatua;
- eskolako hizkuntz elkarrekintzaren nolakoa;
- kurrikulumeko gaiak eta hizkera-moduak;
- irakasleen eta eskola-lagunen euskara-maila; eta
- gizartearen eragin-moldea.

Banan bana aztertuko ditugu ondoren, halako xehetasun batez, goiko bost faktore horiek.

I.1. ESKOLAREN ORDUTEGI MUGATUA

168 ordu ditu asteak. Egunean 9 ordu lo eginaz ere, 105 ordu esna, iratzarririk pasatzen ditu astero OHoko eskola-umeak. Ehun eta bost ordu horietatik zenbat pasatzen ditu eskolan? : hogeitabost bat ordu, normalean. Bere esna-orduen %24 inguru, alegia. Gainerako %76ak ikasgelatik aparte egiten ditu beraz.

Egia da eskola-munduarekiko tratua luzatu egiten dela sarri: bai etxetik eskolara eta eskolatik etxera (maiz asko berariazko autobusez) egiten diren joan-etorrietan, eta bai etxeke lanen inguruan (bakarka edo ikaskide batzuekin elkarturik), ordu-kopuru osagarri garrantzitsua egiten dute ikasle gazteek ikasliburuaren jirabueltan. Kirol-kontua dela-eta ordu-mordoxka, gero eta ordu gehiago, pasatzen dute orobat eskolaren inguruan. Albo-jardun eta ekintza osagarri horiek ez dira ordea klase-emankizunen pareko, ez beren edukiez eta ez ikasleen mintzajarduna arautzeko mekanismoez.

Gorago aipatutako %24 horretara mugatu behar dugu beraz, onenean ere, eskola-umeak irakasmundutik jasotzen duen hizkuntz eragin zuzen-formalizatuaren ordu-portzentaia aztertzerakoan. Eta hori, esan berri denez, onenean: gure artean hain bakanak ez diren astebarruko jaiegunak, zubiak eta, batez ere, udako, gabonetako eta Aste Santuko bakazioak kontuan hartuz oso behera jaisten baita, zalantzarik gabe, eskola-umeen eskolarekiko kontaktua. OHoko ikasleek, adibidez, 176 eskola-egun (eta 880 eskola-ordu) inguru izaten dituzte urtean zehar. Irakasmaila ertainetan ere zifrak ez dabilta hain urruti. Urte horrek berorrek 5460 esna-ordu (hots, 364×15) ditu, bestalde, egunean 9 ordu lo eginez. Horren ondorioz, onenean %24ra iristen zitzaigun eskola-kontaktu hura praktikan %16 ingurura jaisten da, urtean zeharko jai eta jaiondoko horiek direla medio.

Irakasteredu elebidun euskaldunenak (hots, D ereduak) ere ez ditu, bestalde, klase-emankizun guzti-guztiak euskaraz bideratzen. Espainiera bederen, eta atzerri-hizkuntzak hainbatean, erdaraz lantzen dira normalean. Hori dela-eta, aipatu berria dugun %16 hori ere ez da oso-osorik euskarazkoa izaten. Kontuak zehatz aterata zera esan daiteke, beraz: D ereduan dabilen OHOkko haur batek urtean zehar esna pasatzen dituen ordu guztien %14 inguru pasatzen duela bere ikasgelan, euskara edo euskaraz ikasten.

B ereduko ikasleen kasuan, bestalde, portzentaia hori apalagoa izaten da gehienetan. Hasierako ikasturteetan izan ohi duten euskaraganako esposizioa ia D eredukoena bezain sakona gertatzen da, hori bai, hainbat kasutan. Adin jakin batetik gora, ordea, B ereduko neska-mutilen hizkuntzarekiko eskola-kontaktu hori jaitsi egiten da era ohargarrian: lehen hurbilketa moduan, B ereduko ikasle hazixeago horien euskararekiko kontaktu-portzentaia, klase-emankizunei dagokienez, %8 inguruan dabilela esan daiteke.

A ereduan, azkenik, euskaraganako esposizioa are mugatuagoa da: eredu horren hizkuntz trataerazko hobekuntza-bidetik dabilzan berariazko irakaspide eta saiakuntzak alde batera uzten baditugu, A ereduko eskola-ume gehien euskaraganako esposizio-maila nekez %4ra iristen dela kalkula daiteke. Klase-orduen benetako maiztasun-iraupenak kontuan hartuz, zuzenagoa dirudi euskararekiko kontaktu-proporzio hori batez bestean %3an dagoela esatea.

Zifra hauek aski adierazgarriak dira, bere gordinean, eskola-sistemak haurren gizarteratze-lanean oro har eta beren hizkuntz prestaeran bereziki zenbateko garrantzia duen ikusteko. Ukaezineko balioa dute zenbakiok, batez ere, eskola bidezko eragimenaren neurritz gaineko itxaropen-usteak desegokiak direla konturatzeko. Neska-mutilok beren adineko neska-mutilekin, eskolaz kanpoko munduan gailen diren uste-sinesmen eta jarrerei buruz irakasleek eskaintzen dizkieten jarduera-ereduekin eta, oro har, helduen gizarte osoarekin harreman estuagoan sartzeko tresna baliotsua da eskola. Gizarte-harreman horien osagai nagusietako bat da, bestalde, eskolan era formalizatu batez lantzen den hizkuntz gaitasuna. Osagai horren balorea ezertan gutxietsi gabe ere bistan dago ordea lehiakide indartsuekin borroka egin behar duela irakas-sistemak belaunaldi gazteen hizkuntz jokamoldea, batez ere ikasgelako esparru itxi-formalizatutik kanpora dagoena, gidatu edota kontrolatzeko orduan.

Zeintzuk ditu dena den, eta zein neurritakoak gutxi gora-behera, lehiakide horiek? Erantzuna, hoberik ezean, ondoko beste galdera honek eman dezake: zertan pasatzen ditu eskola-ume horrek, aste osoa eskolan pasatzen duenean ere, bere esna-ordu guztiak?. Eskolakoaz gainera honako okupazio, langintza eta jardunguneotan nagusiki: eskolarako eta eskolatiko joan-etorrian; bere etxekekin, jolas eta solas, era askotako elkarrekintzan; (ikus-)entzule xoil gisa telebista ikusten edo irratia entzuten; parkeko, eskolako, kirol-taldeko edo auzoko lagunekin jolasean; kalean, batera eta bestera; eta, azkenik, xede jakineko beste zenbait ekintzatan (eskolaz kanpoko formazio edota praktika desberdinetan, bereziki: fede-bizitzarako prestaera eta elizkizunak, musika, dantza, atzerri-hizkuntzak, kirol bereziak, informatika,...).

Zer pisu-indar dute bestalde, ordu-proporzioan, eskolaz aparteko beste jardun-atal hauek? Alde handiak egon ohi dira, jakina, ume batetik bestera: adinaren arabera, bizilekutik eskolara duen distantziaren arabera, gurasoen egoera sozioprofesionalaren arabera edota kasuan kasuko ezaugarri pertsonalen arabera aski desberdinak dira, alegia, jardun-atal horien pisu erlatiboak. Desberdintasun horiek ezertan gutxietsi gabe ere posible da ordea, lehen hurbilketa gisa, adin-talde jakinetako ikasle "standard" batzuk definitzea eta beraien jardun-atal nagusien ordu-balorazio bat egitea. Horrela, alde batetik 4 urteko haurra hartuko bagenu, bestetik 8 urteko eskola-umea eta, azkenik, 15 urteko gaztea, lehenengoak 11 ordu lo egiten duela kalkulaturik, bigarrenak 9 eta hirugarrenak 8 badirudi asteroko esna-orduen ondoko banaketa-modu hauek hain itxuragabeak ez liratekeela:

a) 4 urteko haurra

Egunean 11 ordu lo eginez 91 esna-ordu lituzke astero, batez bestean, honelako haurrak. Ondoko era honetan eman daiteke, lehen hurbilpen gisa, 91 ordu horien banaketa-eredua (aste osoa eskolara joaten den kasuetarako da banaketa hau. Eskolara joaten ez den asteetan asko aldatzen da, bistan denez, banakera hori):

NON	OSAKERA POSIBLE BAT	ZENBAT ORDU	ESNA- -ORDUEN %
Eskolan	5 x 5	25	27,5
Eskolako joan-etorrian	5 x 1,2	6	6,6
Etxean, etxekeekin	5 x 3,8 + 2 x 7	33	36,3

TB ikusten	$5 \times 1,6 + 2 \times 3$	14	15,4
Parkean, jolasean	$5 \times 1,4 + 2 \times 3$	13	14,3

Taula honetatik antzeman daitekeenez askoz ordu gehiago pasatzen ditu 4 urteko haur honek etxean eta etxekoan inguruan eskolan bertan baino. Kontuan hartu, izan ere:

- eskolarako joan-etorria bera, autobusez egiten ez duenean, etxekoek lagunduta egiten duela;
- parkeko jolasak ere etxekoan (gurasoan, zaindarien, aitona-amonen,...) ardurapean izan ohi ditu maizenik;
- telebista bera ere etxean ikusten du, askotan anai-arrebekin eta gurasoekin solas eta jolas ari dela.

Etxearen eragina, beraz, eskolarena baino zabal-sarkorragoa gerta daiteke adin horretan.

b) 8 urteko eskola-umea

Gauero 9 ordu lo egiten dituela pentsatuz, 105 ordu esna pasatzen ditu astean. Hona, lehen hurbilpen gisa, eskolara joaten den aste normal bateko 105 ordu horiek nola bana daitezkeen:

NON	OSAKERA POSIBLE BAT	ZENBAT ORDU	ESNA- -ORDUEN %
Eskolan	5×5	25	23,8
Eskolako joan-etorrian	$5 \times 1,4$	7	6,7
Etxean, etxekoekin	$5 \times 4 + 2 \times 6$	32	30,5

TB ikusten	$5 \times 2,4 + 2 \times 4$	20	19,0
Lagunekin (jolasean)	$5 \times 1,6 + 2 \times 4$	16	15,2
Bestelako ikasketan	5×1	5	4,8

Kasu honetan ere eskolan baino ordu gehiago pasatzen ditu etxean. Ez hori bakarrik: astean zehar 4 urtekoak baino ordu gehiago egiten duenez esna, eskola-orduen kontaktu-portzentaia %27,5etik %23,8ra jaisten da. Eskolako joan-etorrian pasatzen duen denbora-proporzioa beretsuaenez, eta jolas-orduen proporzioak (ez ordu-kopuru absolutuak) ere zertxobait behera egiten duela pentsatuz, zertan pasatzen ditu gainerako ordu gehigarri horiek?: telebista ikusten, itxura guztien arabera. Ia eskolan adinbat ordu pasatzen ditu telebistaren aurrean.

c) 15 urteko gaztea

Egunean 8 ordu lo egiten dituela kalkulatu 112 ordu esna pasatzen ditu gazte horrek, astero-astero.

Aurreko kasuetan bezala, eta lehen hurbilpen gisa, hemen ere 112 ordu horien banaketa-molde posible bat eman daiteke.

NON	OSAKERA POSIBLE BAT	ZENB AT ORDU	ESNA- -ORDUEN %
Eskolan	5×6	30	26,8
Eskolako joan-etorrian	$5 \times 1,8$	9	8
Etxean, etxekeekin	$5 \times 3 + 2 \times 4$	23	20,5
TB ikusten, irratia entzuten	$5 \times 2 + 2 \times 4$	18	16,1
Lagunekin (koadrila, kirola)	$5 \times 2 + 2 \times 6$	22	19,6
Eskolako lanak egiten	5×1	5	4,5
Beste gauzak ikasten	5×1	5	4,5

Taula honek argi samar adierazten digunez gaztea etxetik urruntzen hasia zaigu dagoeneko: bere esna-orduen %20 inguru bakarrik dago etxekoekin, solasean edo beste elkarrekintza-moduren batean. Telebista ikusten ere 8 urtekoak baino denbora gutxiago pasatzen du. Bi esparru horietako galerak zerekin berdintzen ditu?: ikasketa-lanean eta lagunekin. Eskolan ordu gehiago ditu izan ere, alde batetik, eta eskolako lanak egiten ere denbora gehiago pasatu behar izaten du. Lagunekin, bestalde, kirolean nahiz koadrila-bizitzan gero eta ordu gehiago pasatzen du.

Aurreko hiru tauletan aski garbi gelditu da adinak eragin garrantzitsua duela ikasleen egunoroko bizimoduan: hasieran familiari itsatsiago daude eta gero, hazi ahala, autonomia pertsonal handiagoa eskuratu eta gizarte-bizitza zabalean barneratzen dira. Gizartean gailen diren eragin-indarren menpekoago bihurtzen dira horrela, eta gurasoen babes-eremutik urrunagotu egiten dira.

Adin batetik besterako alde horiek nabarmenak izanik ere bistan dago ordea, edozein kasutan, guri batez ere ardura digun fenomenoak: eskolaren ordu-muga, eta ondoriobidezko eragimen-muga. Ez dago ahazterik, gainera, goiko hiru tauletan emandako banaketa-molde horiek aste osoan zehar klasea duten kasuak bakarrik hartzen dituela kontuan. Errealitatea hori baino ondotoz ahulagoa da, ordea: urteko 52 asteetatik 35 bakarrik dira, izan ere, eskola-asteak; gainerakoetan, bakazioak-eta direla medio, klaserik ez da izaten eta eskolaren eragina arrunt ahultzen da.

Laburbilduz: eskola-umearen bizigune eta jardun-esparru nagusietarikoa da eskola, bere haurtzaro samurrenetik hasi eta gazte hazia egin arte. Ez da, ordea, guneko bakarra: haurraren eta gaztearen uste-sinesmenak, jarrerak eta jokamoldeak (hizkuntz

jokamoldea barne) gizarte-eragile askoren artean moldatzen dira, ikusi berri dugunez; eskola, faktore garrantzitsua izanik ere, molde-eragile horietariko bat baizik ez da.

I.2. ESKOLAKO HIZKUNTZ ELKARREKINTZAREN NOLAKOA

D ereduko ikasleak gela barruan euskara(z) ikasten pasatzen dituen bere esna-orduen %14 horiek (B-koak %8, A-koak %3) ez ditu gainera, etengabe, mintzajardun aktiboan pasatzen. Eskola-umea ikasgelan dagoen denbora guztian bere ezpain-lumak zorrotzen ari izango balitz adelantu handia luke, bistan da, gelatik kanpora ere euskaraz jarduteko. Gela barruko hizkuntz elkarrekintza aski bestelakoa gertatzen da, ordea. Irakaslea izan ohi da gehienetan, izan ere, gela barruan mezu-igorle. Eta ikasleak, ondorioz, mezu-hartzaile izaten dira eskola-ordu gehienetan. Ondo pentsatzen jarrita, aski ordu gutxi pasatzen ditu ikasleak ikasgelan hizketan: ordu gutxi irakasleari erantzuten; eta are ordu gutxiago bere ikaskideei, aurrez aurre eta boz goran, jendarteko azalpenak ematen. Hitz egin hitz egin, irakasleak hitz egiten du gelan. Ikasgela ez da eskola-ume haur eta gazteentzat, horren ondorioz, hiztun-harrobi sendoegia gertatzen.

Ikasleek entzun, irakurri eta idatzi egiten dute nagusiki. Batez ere entzun. Ez da harrizkoa, horrexegatik, ongien menderatzen duten hizkuntz trebetasuna entzutezko ulermena izatea. Maisuen hizkera-molde gehienak aski ongi entenditzen dituzte ikasleek. Irakasle gutxiri entzungo diozu ikasleen ulermen-maila ahulaz kexatzen. Defizit nagusia ez dirudi hor dagoenik.

Irakurri ere egiten dute eskola-umeek. Eztabaidagarria da, zinez, gaur eguneko euskal eskolak umeen irakurmen-trebetasunak landu ditzakeen neurri bete-betean lantzen dituen

ala ez; eta eztabaidagarria da, batez ere, eskola-umeei irakurtzeko orduan eredu gisa ematen zaien doinuera eta hitz-lokera euskal mintzoak berez eskatzen dituen modukoak ote diren. Ez da arrazoirik falta alor honetan ere hobekizunik franko bagenukeela uste izateko. Bere muga eta eragozpen guztiekin ere landu egiten da ordea eskolan, urterik urte, euskarazko irakurmena. Eta alor honetan ere ez dirudi, beraz, ikasleen hizkuntz gaitasunezko falta-gabeziak hain gordinak direnik.

Idatzi ere egiten dute, eskolan, neska-mutilek. Egia da fitxak betetzeko ohiturak laguntza eskasa egiten diola idazmen-lanketari: ikasleen mintzapraktika indartzeko baino ezabatzeko tresna sendoagoa da, berez, fitxa. Egia da, orobat, fitxaz aparteko beste idaztariketa askotxotan ere azalpen mugatu eta isolatuak sarriegi gertatzen direla. Ez dago dudarik, ordea, idatzi egiten dutela ikasleek: diktaketak direla, gai-laburpenak direla, literatur alorreko idazlantxoak direla, azterketak direla, ... pentsatzekoa da ahots goran hitz egiten baino euskaraz idazten denbora gehiago pasatzen ez ote duten eskola-umeek, adin batetik aurrera behintzat, beren klase-orduetan.

Gelaz kanpoko hizkuntz elkarrekintza nagusia ahozkoa da ordea: bai helduen munduan eta bai, bereziki, haurren eta gazte-gaztetxoan artean. Horra, beraz, kontraesana: eskolak ikasleen esna-orduen %14a bereganatzen duenean ere ez du, bereziki, aho-hizkuntza lantzen eta indartzen. Eta klasez kanpoko mintzajardun arrunt egunorokoa gela barruko hizkuntz elkarrekintza formaletik urrunxko gelditzen da, horregatik beragatik ere.

I.3. KURRIKULUMENKO GAIK ETA HIZKERA-MODUAK

Gela barruan nork norekin hitz egiten (edota, sarriago, irakurtzen edo idazten) duen ikusi dugu aurreko puntuan, zenbat (edota zein gutxi) egiten duen ere aipatuz. Nork norekin, noiz eta zenbat egiten duen begiratzeaz gainera inportantea da, ordea, zertaz jarduten duten aztertzea. Hori da orain ikusi nahi duguna. Hitzunak, edozein hizkuntzatako hitzun normalak, ez du beti berdin hitz egiten. Segun norekin ari den, zertaz eta zein asmorekin, aski hizkera-modu desberdinak erabiltzen ditu aitzitik delako hitzun horrek. Hizkuntz errejistro desberdinak erabiltzen dituela esaten da. Euskaraz ere beste hainbeste gertatzen da: era batera hitz egiten dugu etxean guraso edo aiton-amonekin ari garenean, beste batera lagunartean tabernarik taberna gabiltzanean, beste modu batean leihatila baten atzetik bezeroak atenditu behar direnean eta aski bestela, bistan da, apaiza pulpitotik ari denean edo telebistako esataria eguneko berriak ematen ari zaigunean. Hitzun trebeak badaki zein lekutan eta zer okasiotan zein hizkuntz errejistro erabili behar duen: berari bizitzea tokatu ohi zaion jardun-esparru eta harreman-sare nagusietan "markatua" (eta, horrenbestez, inoren lotsagarri) ez gertatzeko ondo saiatzeko da, saiatu ere, aldian aldiko errejistro egokia erabiltzen.

Haurren eta gazte-gaztetxoen arteko hizkera-moduak ere baditu bere ñabardurak: zenbaiten ustez, gazte-taldeen barne-hizkera edo adin-lekto batez ere hitz egin daiteke. Ñabardura horiek oraingoz alde batera utziaz zera esan daiteke, dena den: etxe-giroko eta lagunarteko hizkera lasai bihotz-sentieratsu bizia, abstrakzio-munduko sorkarien kontzeptu-formalismoetatik urrun dagoena, izan ohi dela halakoetan, askogatik, nagusi.

Hizkera-molde lasai horrek baditu bere arauak: lekuan lekuko hizkeran edo euskalkian oinarrizten da gehienbat; perpaus-egitura xumea, menpeko esaldi luze-bihurrietatik ihes egin zalea, du adierazpide; kontagai dituen barne-sentiera eta poz-haserreak indarrez agertzeko hitz-altxor afektibo eta gatz-piperdunaz baliatzen da sarri.

Euskara-molde hori erakutsi beharko luke eskolak, batez ere ikasleen eskolaz kanpoko mintzajardun arrunta indartzekotan. Normalean ez du, ordea, honelakorik egiten. Eta ez kasualitatez. Horra zergatik, besteak beste: bere-berezko xedeak eta helburuak dituelako, hemen eta nonahi, irakasmunduak. Helduen lanbide eta jardun-esparru formalizatueterako prestatu nahi izaten ditu eskolak, besteak beste, eskola-umeak. Horretarako, berriz, bertatik bertarako hizketa-bide afektibo, goxo-barrenkoi, prosaiko eta jolaskoiarekin zerikusi txikia duen hizkuntz eredua transmititzen ahalegintzen da. Behar-beharrezkoa da hori ere: gure hizkuntzak bihar edo etzi euskal gizartean bizirik iraungo badu hiztunek gai izan beharko dute, halako neurri batean behintzat, beren hainbat jardun-esparrutan (eta ez etxe-barne ezkutuan bakarrik) elkarrekin euskaraz jarduteko. Mintzajardun horrek, berriz, errejistro formalak ere neurri batean menderatzea eskatzen du eta idatzizko adierazpena, ahozkoaz gainera, dominatzea: bizi garen mendean bizirik, eta hurrengoaren atarian gaudelarik, ezer gutxitarako du hiztunak jendaurrean agertzeko herren eta motx gelditzen zaion mintzaira eta neke handiz baizik irakurtzen eta idazten ez dakien hizkuntza.

Ez da harriztekoa, guzti horregatik, euskal eskola ikasleen idatzizko trebetasunak lantzen eta euskalkiz haraindiko hizkuntza formal-espositiboa

erakusten saiatzea. Une honetan azpimarratu nahi dena, ordea, besterik da: horretan saiatzen den neurrian egunoroko hizkuntza gatz-piperdunetik aldentzeko joera ere baduela eskolak, ezinbestean. Eta, ondorioz, eskola-umeen gelaz kanpoko mintzajardun bizi-arrunterako egokienak liratekeen hizkuntz ariketei, esamolde-lanketari eta elkarrizketa-saioei ez zaiela gehienetan lehentasunik ematen.

I.4. IRAKASLEEN ETA ESKOLA-LAGUNEN EUSKARA-MAILA

Gatozen berriro ikasgela barruan nork norekin jarduten duen ikustera. Ez ordea, lehen bezala, solaskide bakoitza zertaz eta zenbat minutuz (edo orduz) euskaraz ari den aztertzeko, beste zerbait arakatzeko baizik. Irakaslearekin eta gelako ikasle-lagunekin jarduten du eskola-umeak, hartara iristen denean, euskaraz. Nolako euskaraz, ordea? Beste hitzetan esanik, noraino ditu eskola-ume horrek bere gela barneko solaskideak euskaldun ? Euskaldun petoak al dira, alegia, bai irakaslea eta bai ikaskideak, ala nola-halako euskaldun motel, erdipurdikoak ?. Eta nolako euskaraz jarduten du, solaskide horiekin, gure eskola-umeak ?. Ikus ditzagun puntuok, halako xehetasun batez.

Irakasle-jendeari dagokionez aurrerapen handiak egin dira, azken hogeitahogei hamar urte honetan, hizkuntz ezagueraren alorrean. Lehen baino askoz irakasle euskaldun gehiago dago orain era eta maila guztietako ikastetxeetan. Pasa dira garaiak irakasle euskaldunek, multzo osoaren baitan, azpimultzo txiki-ñimiñoa baizik osatzen ez zutenekoa. Unibertsitate-alorra alde batera uzten bada, Autonomi Elkarteko irakasle guztien %40 inguru euskalduna da dagoeneko.

Irakasle euskaldun horietariko asko etxetik da euskaldun: euskaldun zaharra izateaz gainera hiztun jator eta iaioa izan ohi da, askotan, halakoa. Gero eta sarriago, gainera, euskaldun alfabetatua izaten da era horretako irakaslea. Horren gelan dauden eskola-umeek, ondorioz, lehen ez bezalako aukera arteza izango dute hizkuntz eredu oparo, aberats eta emankor-funtzionala jasotzeko: euskara batuaz (edo, bakanago, bizkaiera bateratu jasoaz) mintzatuko zaie irakasle hori bere ikasleei, bere jakintza-alorreko kontzeptuak, definizioak eta adibideak era garden eta gihartsu batez adieraziz. Suerte handia du, dudarik gabe, halako gelan suertatzen den ikasleak: jasoko duen "hizkuntz bazka" ernagarria izango da beretzat, lehendik euskararen ezaguera-oinarri on bat (etxean jaso, aurreko eskola-urteetan ikasia, ...) berekin baldin badu.

Egoera ez da ordea, tamalez, beti eta nonahi hain baikor eta txuri-gorria. Euskal irakaskuntza, eta are euskararen gizarte-statusa bera, abiatu den lekutik abiatu delarik urruti dago oraindik eskola-mundua, bere osotasunean, hizkuntzazko normaltasun-giro erabateko horretatik. Ugariak dira, hori dela-eta, tarte-bitarteko hizkuntz egoeran dauden irakasleak. Horrela,

a) etxetik euskaraz ondo hitz egiten jakin arren hainbat irakaslek ez daki oraindik, behar den neurri betean, jendaurrean edo eginkizun formaletarako maila jaso batean jarduten: hitz egiteko nahiz idazteko eguneratze on baten beharrean dagoen irakasle eta andereñorik ez da alegia, oraindik, han-hemen falta. Bai noranahiko euskara landu batean jarduten eta bai euskara batuaren arauak ikasten eta zuzen erabiltzen,

hobekuntza nabarmenik egin dezake gaur egun irakasle euskaldun zahar askok. Urrats hori ematen ez duen artean pentsatzekoa da bere gelako ikasleek jasoko duten ahozko eta idatzizko hizkuntz ereduak eragozpen bat baino gehiago izango duela berekin. Gizarte-esparru desberdinetan jarduteko euskarak, beste edozein hizkuntza landuk bezala, etxeo euskararekin eskuratzen ez diren errepertorio edo mintzamolde jaso-zabalagoak ere behar ditu. Mintzamolde jaso horiek eskolak eskaini beharko ditu, bestalde, inork eskaintzekotan. Multzo honetan dauden irakasle eta andereñoek, berriz, ez dute gaur-gaurkoz eskaintze-lan hori behar bezain oparo betetzen.

Azken hogeitun urteotan alor horretan egin den aurrerapena kontuan izanik badago, dena den, itxaropentsu izateko arrazoirik: ikasliburuetako euskara meioratzearekin batera espero izatekoa da, besteak beste, etxetik euskaldun sendo diren baina landu-arin dauden irakasleon gaitasuna ere poliki-poliki gora joango dela.

- b) bada gure eskoletan, bestalde, irakasle euskaldun ele-eraskanik. Txikitan gutxi-asko euskaraz ikasi ondoren gero, ikasketak, lagunartea edo lanbidea dela medio bere euskara-maila (batez ere bere mintzamina) itxuratxarki trakestutako hiztuna izan ohi da, normalean, multzo honetako irakasle-eredua. Askoz airosoago, ondotoz errejistro jasoagoak erabiliz eta bestelako grazia batekin egiten du horrek erdaraz. Defizit nabarmena dauka bere euskal mintzaminean, eta idatziz ari denean ere aski nabariak izan ohi ditu, h letra bere lekuan jartzen hor

nonbait jakin arren, oinarrizko aje-gabezia horiek. Aurreko multzoko irakasleen aldean asko falta zaio honi, nolana ere, elebidun orekatu-antzekoa izateko.

Euskal irakaskuntzak horiekin ere kontaktu egin behar izan du, B eta D ereduko ikaslerroei urterik urteko garapena eman ahal izateko. Eta oso esker txarrekoa litzateke, orain, hasieran erdaraz ikasi zituzten materiak euskaraz irakastera jarri diren irakasle horien dedikazioa eta merezimendua aintzakotzat ez hartzea. Ikuspegi dinamiko batetik aztertu behar dira, gainera, fenomeno hauek. Eta ikuspegi horrek, ezer erakustekotan, gauza bat erakusten digu: irakasle ele-erasan horietariko hainbat benetako aurrerapausoak egiten ari dela. Oinarrizko alfabetatze-saioetan murgilduz, irakasle-lagunekin euskaraz jardutearen poderioz bere mintzamina suspertuz eta hizkuntz eredu zuzenak bereganatzen ahaleginduz, ...

Batak ez du bestea kentzen, ordea. Eta aitortu beharra dago, ondorioz, hainbat ikaslek bere gelako irakaslearengandik jasotzen duen hizkuntz eredu ez dela behar bezain egokia: ez kontzeptu formal-abstraktuen lanketak eskatzen duen hizkera-molde jasoaz jabetzeko eta ez, bereziki, egunoroko bizibide arruntak bere-berea duen hizketa-bide gatz-piperdun bizia sendotzeko.

- c) Irakasle euskaldun berrien kontua dago, azkenik. Ez noski salbuespen miragarritz, aspaldidanik euskalgintzan jardutearen jarduteaz, gutxi

bezalako maisu-itzala eskuratua duten euskaldun berri sendo-landuen kontua, gailentasun-maila horretatik aski urrun dauden gehienena baizik. Gorago aipatu denez, dagoenarekin moldatu beharra zeukan eta dauka euskal irakas-sistemak bere irakasteredu elebidunak zabaldu eta hedatzeko. Eta horra: zegoena eta dagoena, ongi ezaguna denez, irakasle-jende erdalduna da neurri handi batean. Ez dago azken hamar urteotako nondik norakoa sakonegi aztertzen hasi beharrik honetaz ohartzeko: beren buruak berrikitan euskaldundu dituzten irakasleak dira gaur egun, gero eta proportzio handiagoan, euskarazko klase-emaile. Hiru ereduetan gertatzen da hori. Ez proportzio berean, halere: D eta, batez ere, B ereduetan gertatzen da hori, itxuraz, gehienik. Bere burua euskaldundu eta erdal irakasle izatetik euskal irakasle izatera pasatu izanak badu, bistan da, bere alderdi ona: irakasle askok euskalgintzarako agertu duen borondatea eta konformidatea. Lan nekagarria da, izan ere, euskararen itsasoan murgildu eta lehenengo urte-mordoxka batean behintzat aldats gora egingo zaion irakaspide "berri" batean barrena abiatzea.

Ikaslearen hizkuntz interesen aldetik begiratuta ordea, eta alde horretatik ari gara orain begiratzen, badu guzti horrek ondorio kezagarriarik ere: nola-halako euskara jasotzen dute ikasleek, hainbat kasutan, irakasle euskaldun berri horiengandik. Eskola-umea etxetik erdalduna baldin bada, "benetako" euskararekin kontaktu luze-zabalik gabe jarraitzeko arriskua izango du eskola-ume horrek, urtea joan eta urtea etorri, B edo D ereduan ikasi arren. Etxetik euskalduna baldin bada, berriz, nekez

jasoko du "hizkuntz bazka" ernagarririk lehendik bereganatua duen oinarrizko hizkuntz gaitasun hura konfirmatu, sendotu eta errejistro formalez aberasteko. Aurrera orde bere hizkuntza-mailan atzera egiteko arriskurik ere badu, bistan denez, halako irakaslerik tokatu zaion ikasle-jendeak. Etxetik sendo samar zekarrena kolokan jartzeko eta erdal-euskara moduko pidgin baterantz bideratzeko arriskua, erdarak kale-bizitzan duen erasan-indarra kontuan izanik bestela ere nahiko presente lukeena, areagotu egiten zaio ikasleari situazio horretan. Hori onenean: txarrean, erdarara salto egiten du zuzen-zuzenean.

Hemen ere gauzak bere ibilian aztertu beharra dago, ordea, ondorio-emaitzen balantzea bere onetik aterako ez bada. Kontuan izan behar da, horrela, aipatu berriak diren ahuldade eta eragozpen horiek ez direla ezinbestean gaudituezinak: irakasle euskaldun berri horietariko askok, esate baterako, hasiera batean lortu zuen IGA mailatik aurrera jarraitu du eta EGA eskuratzera iritsi da dagoeneko. Ez da horien artean falta, gainera, bere egunoroko mintzapraktika saiatuaz gero eta euskaldun sendo, trebe eta jatorragoa bihurtzen ari denik. Honetan ere egunoroko jardunak asko esan nahi du: ikasle eta irakasle euskaldunak inguraturik dagoen irakasle euskaldun berriak, bereziki, aukera hobekak ditu bere defizit hori berandu baino lehen ezabatzeko. Eta gaurko ikasleak baino egoera hobean egongo dira bihar-etzikoak, urak beren bidetik badoaz, irakasle euskaldun berri horiengandik "hizkuntz bazka" osabetezkoagoa jaso eta mintzagaitasun sendoagoa eskuratzeko.

Esana bego beraz, honenbestez, irakasleen euskara-mailak faktore garrantzitsua dirudiela ikasleen hizkuntz gaitasuna eta euskarazko mintzajardunaren zenbatekoa neurtzerakoan. Etxetik erdipurdikako hizkuntz oinarriaz eskolaratzen den haurra (zer esanik ez gurasoak erdaldunak dituen) nekez hitzun sendoa bihurtuko da euskaldun osoak ez diren maisu-maistren eraginez. Horiengandik jasoko duen hizkuntz eredua, bereziki, nekez izango da bere gaztaroko eta heldu-aldiko gizarte-bizitza zabalean beharko duen mintzagaitasun sendo-zorrotza eskuratzeko aski.

Ikasleak ez du ordea, eskola-giroan, irakaslearekin bakarrik hitz egiten: eskola-lagun edo ikaskideekin ere hitz egiten du. Are gehiago: eskola-lagunekin hitz egiten du batez ere. Aukeran gutxi aztertutako alorra da, zoritxarrez, ikaskideen bizi-esparru arrunterako mintzagaitasunarena; azterkizun dago orobat, neurri handi batean, neska-mutil horien eskola-giroko mintzajarduna. Baliteke, ondorioz, hemen agertuko den zenbait hipotesi aukeran egin-arin eta gordinegi egotea. Guztiarekin ere ikaskideen mintzagaitasunaz eta beraien arteko mintzajardunaz, bere zer-nolakoaz, inpresio mailako bizpahiru ohar egitea merezi duela dirudi. Hona hemen, lehen hurbilketa moduan, guraso eta irakasle euskaldunen artean bederen behin baino gehiagotan entzuten diren komentarioak.

a)Ez dago ahazterik etxetik euskalduna den ume askok, D ereduan dabilenean ere, etxetik erdaldun edo sasieuskaldun diren umeekin egiten duela eskolan topo. Bai eskolan (D ereduko gelak B edota A-koekin batera daudenean, bereziki), eta bai ikasgelan bertan. Ume euskaldun-euskaldunez osaturiko gelak, gelako ume guztiak

hala direnekoak alegia, ez dira D eremuan ere hain erraz aurkitzen. Orain dela hamabost-hogei urte baino sarriago gertatzen da, aitzitik, D ereduko gela horietan etxetik euskaldun diren neska-mutilen ondoan, aski proportzio ohargarrian, beste era bateko eskola-umeak egotea. Beste zein eratakoak ? Ondoko bi multzo hauetakoak, besteak beste:

- ama-hizkuntza erdara duten umeak: horientzat, eskolan euskaraz ikasten badute ere, gehienetan erdara izan ohi da hizkuntza nagusia. Beren barne-pentsakizunak hartaz bideratzen dituzte, eta erdarazko hizkuntz gaitasuna (ohizko "ocasiones de uso" edo erabilguneetan, bereziki) landuagoa eta sendoagoa dute: hitz-erori hobea dute, besteak beste, erdaraz;
- ama-hizkuntzaz erdi-euskaldun diren umeak. Hauetariko askoren kasuan, konkretuki, zera gertatzen da: euskara ikasi eta handik gutxira (hainbat kasutan euskararekin batera) erdara ikasten dutela. Horien ama-hizkuntza euskara dela esatea halako neurri batean diskutigarria da. Diskutigarria, batez ere, famili esparru itxiaz haraindiko mintza-esparru gero eta zabalagoen eraginez beraien erdarazko hizkuntz gaitasuna euskarazkoa baino handiagoa bihurtzen denean. L1 eta L2-ez hitz egitea baino zuzenago litzateke, hauen kasuan, LA eta LBz jardutea (1).

Etxetik euskaldun diren umeek ere gutxitan aurkitzen dute beraz, eskolan, euskarazko bizigiro sendo-pizgarririk eskainiko dieten lagun-talderik.

b)Gertaera hori dela medio, familia euskaldun-euskaldunetan jaiotako ume gehienek eskolan, sarri asko D ereduko eskolan, ikasten dute erdaraz. Eskolan hasi eta handik berehala ikasi ere. Euskal eskola da gaur egun, itxuraz, ume euskaldunek erdaraz ikasteko lekua: han izaten dute, alegia, erdararekiko lehen kontaktu zabal, sakon, eragingarria. Hain eragingarria ze, handik aurrera, beren bizitzaren zati oso batzuk erdaraz edo erdal euskaraz antolatzen hasten dira: jolas-modu batzuk, haserrealdiko espresioak, atsegin- eta poz-azalpenak (" que guay!, da super ona"). Hori ez dute, normalean, irakaslearekin ikasten: ikasleen artean ikasten dute. Batzutan, askotan, beren gelako ikasleetatik ikasiko dute: honegatik edo hargatik aitzindari bilakatzen direnetatik. Beste batzuetan, aldiz, beraiek baino zertxobait zaharrago diren neska-mutilak hartuko dituzte eredu. Gauza bat da, dena den, argi samar dirudiena: etxetik euskaraz ondo samar dakiela eskolaratzen den haurra "beste" era batera hitz egiten hasten da handik gutxira. Etxeko euskaraz egiten badaki, baina beste euskara-molde batera jotzen du gero eta sarriago: baita gurasoekin ere. Aitak edo amak atentzioa deitu orduko konturatzen da, eta etxekora itzultzen. Jakin badaki, baina bestea lehenesten du. Badirudi, azken batean, eskola-

ume euskaldunentzat ere hizkuntz eredu eragingarriagoa gertatzen dela beste umeena, nahiz eta zarpail-trakets-kamutsagoa izan, gurasoen eta irakasleen euskara jator-sendoagoa baino.

I.5.- GIZARTEAREN ERAGIN-MOLDEA

Ikusi berri dugunez, eskola-giroak eragin zuzena du eskola-umeen mintzajardunean. Bertako irakasleen eta ikaskideen mintza-jokaerak eta hitz-etorriak baldintzatu egiten du, neurri ohargarri batean, eskola-ume horien hizkuntz portaera. Eskola-giroa ez da, ordea, hizkuntz portaera horren baldintza-iturri bakarra: eskola bera ez da haurraren egunoroko bizi-giroaren zati bat baizik. Horren ondorioz, eta lehen ere adierazi dugunez, eskola-faktoreaz gainera eragin handikoak dira ikasle bakoitzak bere eskolaz kanpoko jardun-esparru ohizkoenetan aurkitzen dituen hizkuntz ohiturak, jokabideak eta jarrerak. Gizarteak berak, bere osotasunean, hizkuntza bakoitzari atxikitzen dizkion ordain-sari eta zigor-ahalmenekin era nabarmenean mugatzen eta bideratzen du alegia eskola-ume horien mintzamoldea.

Esparru asko ditu noski gizarteak; eta, dakigunaren arabera, esparru guzti horiek ez dute ikasleen hizkuntz jokamoldean neurri bereko eragina. Zein esparruk du, gure hizkuntza biziberritu ahal izateko, garrantzi berezia? Bada galdera honi, mundu zabalean gertatzen denaz ongi jabeturik, erantzun pisuzkoa emana dionik. Horien artekoa da, esate baterako, J.A. Fishman irakaslea (2). Gogora dezagun, laburbilduz, bere ikusmoldea: famili giroan, auzo mailan eta eskola-umeen gizarte-bizitzako elkargiroan saiatu beharra dago neska-mutil horien euskarazko

mintzajarduna indartu, hedatu eta aberastu nahi bada. Belaunez belauneko hizkuntza transmisioaren lehen mailako muingune diren jardun-esparru horietan sendo eragin beharra dago, alegia, begiz jotako helburua lortzeko. Etxe-giroan, auzoan eta jende artean bere onetik aterata dagoen hizkuntza ezin liteke, izan ere, eskola-bide hutsez osasun oneko hizkuntza baten moduan transmititu eta belaunaldi berri horien mintzaira arrunt bihurtu.

Hots, eskolaz kanpoko eta eskola-aldiaren ondoko gizarte-loturak eta indargarriak behar-beharrezko ditu hezkuntza-alorrek, ikasleek eskolan jasotako euskarazko trebetasun-ezaguerok indartu eta eguneroko jardunean erabiliko badituzte. Haur txikiengan euskara biziberritu nahi baldin bada beren familian, auzoan eta ume horien bizi-giroan ere horren aldeko neurriak hartzen edo bideratzen ahalegindu beharko da orobat. Etxe-giroa, auzo hurbila eta luze-zabalagoko bizi-inguru hori gertatu ohi dira normalean, izan ere, gure eskola-umeen txiki-txikitatiko, eskolara aurretiko eta eskola-garaiko sozializazio-prozesu barrenkoi-intimoen iturburu: txiki-txikitatiko intimitate- eta identitate-lanketa horretaz hasten dira umeok beren bizi-giroan indarrean dagoen (bertan nagusi den) hizkuntza eskuratzen, gero eta trebeago menperatzen eta baliabide ugari aberatsez osatzen. Inguramendu horretan konturatzen ere dira neska-mutilok, koskortu ahala, eskolan ikasten ari diren euskara horrek egunoroko bizitzan zertarako eta noraino balio dien. Beren bizi-giroko mintzajardun arrunt horretarako euskara beharrezko (edota, gutxienez, mesedegarri) gertatzen bazaie probetxu hobea aterako diote eskolan ikasten ari diren horri. Eta, batez ere, eskola-lagunekin euskaraz egiteko bai trebatuago egongo dira (dabilen harriari ez baitzaio goroldiorik sortzen) eta bai motibo gehiago sentituko dute.

Noraino dute gaur eguneko eskola-umeek, baita D eredukoek ere, euskararen lagungarritzko gizarte-babes hori segurtaturik? Batera al doaz ikasgeletan irakasleek eta ikasleek egiten duten esfortzu hori etxe-giroan, auzo hurbilean eta luze-zabalagoko bizi-inguruetan belaunaldi berri horiei euskaraz bizitzeko benetan eskaintzen zaien bultzadarekin edota, soil-soilik, aukerarekin?. Erantzuna, oraingoan ere, ez da beti-batekoa: kasuak eta kasuak daude. Horrela,

a) har dezagun, punta bateko adibide gisa, Urola aldeko herri edo herrixka batean bizi den zortzi-hamar-hamabi urteko ikasle bat. Probabilitate handia du ikasle horrek aita eta ama, biok eta ez bat bakarrik, euskaldunak izatekoa. Ez nolanhiko euskaldunak gainera: etxean euskara hutsean egingo dute aita-ama horietariko gehienek, eguna joan eta eguna etorri, bai seme-alabekin eta bai beren artean. Aiton-amona eta anai-arrebekin ere euskaraz, euskara hutsean, egingo du normalean ikasle horrek. Kanean ere bai, gehientsuenetan: euskaldunak ditu lagunak, eta euskaraz egiten du beraiekin. Berdin plazako goxoki-saltzailearekin, liburu-dendako zerbitzariarekin eta kale-izkinako okinarekin, eskolara bidean bere "bollo"-a erosterakoan. Euskaraz egiten du igandetean futbolearen edo esku-baloian ari denean, kirol-talde osoaren mintza-ohitura horixe baita, eta euskaraz egiten mendira doanean.

Probetxu ederra egin diezaioke ikasle honi (beste askori baino aberats-pizgarriagoa, lehen ere azaltzen saiatu garenez) euskal eskolak. Horretan ez dago dudarik. Hori bezain garbi egon behar luke, ordea, beste honek ere: Urola aldeko neska edo mutil horrek egunoro eta nonahi,

eskola-giroan eta handik kanpora, euskaraz egiten badu gertaera hori ez zaiola euskal eskolari bakarrik zor. Horren lagungarri izango da, seguru asko, euskarazko eskolaketa. Ez giltzarri bakarra, ordea; eta, agian, ez giltzarri nagusia ere. Kontuz ibili beharra dago horrelako baieztapenak egiterakoan, gure artean ondo neurtu eta kontrastatu gabe baitago oraindik faktore desberdin horien berariazko eragin-indarra. Esperientzia eta eskarmentu gehiegi bildua dugu ordea jadanik, ezker-eskuin, era horretako ondorio-azalpenen erabateko ez-ikusian ibiltzeko.

- b) punta bateko adibidea (gutxi-asko idealizatua, baina ez irreal) genuen aurreko hori. Har dezagun orain, aldiz, beste puntako adibidea. Horretarako ez dago, ezinbestean, geografikoki hain urrun joan beharrik. Demagun Bilbo, Gasteiz edo are Donostialdeko neska edo mutil bat dugula, hau ere zortzi-hamar-hamabi urte ingurukoa eta B edo D ereduko ikastetxe batera doana. Probabilitate handia du gaztetxo horrek (Bilbokoa edo Gasteizkoa bada handiagoa, baina Donostiakotik ez hain-hain desberdina) etxean gurasoek beren artean erdaraz egitekoa. Litekeena da bietako batek, aitak edo amak, gutxi-asko euskaraz jakitea eta seme-alabekin une batzutan bederen euskaraz jardutea; baina erdara dute, nagusiki, etxeko hizkuntza. Hala egiten da, orobat, aiton-amona eta izeba-osabekin. Eta hala egiten, hainbatetan, anai-arreben artean ere. Alferrik izango da gure gaztetxo horrek etxean aurkitzen ez duen euskal babes-inguramendu hori kale gorrian bilatuko duela espero izatea: nekez gertatuko zaio eskolako autobus-gidaria, parke ondoko edarieta kromo-saltzailea edota kirol-taldeko lagun gehienak euskaldunak (euskaldun praktikanteak) izatea.

Egoera horretan ez da hain harrigarria gure gaztetxo horrek (baita eskola-giroan ere, irakaslearekin hizketan ari ez denean) erdaraz jardutea. Kontuak ateratzen hasi orduko zera ikusten du, izan ere: erdara baino nekezago dominatzen duen hizkuntza horretan jarduteak ez diola gehienetan bere egunoroko bizigiroan txertatzeko balio, edota ez diola probetxu espezialik ateratzen. Zertan jardungo da burua nekatzen, nola-halako euskara batean mintzatuz, esan gogo duen hori hitz-etorri ederrez eta barne-sentieraren zirrarak zorrotzago azalduz denek ulertuko dioten erdaran erosoago esan badezake? Erdaraz dihardu normalean, ondorioz, B edo D ereduko gure ikasle horrek. Urola aldeko beste hark bezalako euskal eskolan jardun arren, hura euskaraz ari da barra-barra eta hau, aldiz, ia erdara hutsean. Batean euskal eskolak funtzionatu egin al du, eta bestean ez? Apenas.

Puntako egoera bi azaldu ditugu aurreko pasarteetan. Pentsatzen hasita esan ere egin daiteke, bigarren egoera hori ez dela hain punta-puntakoa: are egoera zail eta euskara gabeagorik ere badagoela, alegia. Sinplifikazioak direla ere esan dugu, gainera, bata zein bestea. Halere, egunoroko bizitzan gertatu egiten dira, hor-nonbait, punta-kasu horiek. Ez horiek bakarrik, ordea, inondik ere. Errealitatea ez baita, izan ere, txuri-beltz hutsa: hori baino ondotoz bariatu, konplexu eta tarte-bitarteko egoerez hornituagoa da, aitzitik, irakas-sistema osoa. Eta hortik dator, hain zuzen, gizartearen eragin-moldeaz (hots, eskola-adineko gaztetxoan mintzajardunean duen eragimenaz) azalpen argi eta sinplerik emateko dugun zailtasuna.

II.-ESKOLAREN ERAGIMENA, EUSKARA INDARBERRITZEKO

ORDUAN

Ajeak eta gabeziak, ahuldadeak eta ezintasunak ikusi dizkiogu eskolari euskara indarberritzeko orduan. Euskaltzaleen eskola bidezko amets hura zergatik betetzen (osorik behintzat betetzen) ari ez den aztertu dugu. Eta konturatzen hasi gara, gauzak halako xehetasun batez ikertzen hasi orduko, ez dela kasualitatea: arrazoi sendoak daudela, alegia, gauzak gertatzen ari diren bezala gertatzeko. Eta aurrerantzean ere espero izateko dela kontuak hor-nonbait bide horretatik joatea, hizkuntz jokamoldearen gizarte-antolakera era ohargarrian bestelakotzen ez bada.

Etsipen saminean murgildua sentituko da bat baino gehiago, seguru asko, gauza hauek irakurrita. Pentsatzen hasi ere egingo da agian, berekiko, honelako zerbait: "egoera horrelakoa baldin bada, ondorio horiek neurri batean logikoak eta are ezinbestekoak baldin badira, zertan ari gara? Ez al da hobe izango alferrik ari garela onartu eta amets txuri-gorri horiek alde batera uztea?".

Ez luke azalpen honek irakurle-jendea emaitza horietara lerratu nahi. Goian esandako guztia oso aintzakotzat hartu behar dela uste izanik ere, bai baitira horrekin batera kontuan hartu beharreko beste zenbait datu eta faktore. Aurrekoek karga negatibo gogorra duten bezala, baikorrak, proiektzio positibo baterako helduleku finakoak dira beste faktoreok. Ez dute goian esandako guztia ezertan ezabatzen edo baliogabetzen, baina eskolak belaunaldi berrien euskalduntze-lanean eta gure hizkuntza biziberritzeko saioan izan dezakeen eragimen sendoaz argibide baliotsuak eskaintzen dituzte.

Bi eratako arrazoiak daude, nagusiki, ikuspegi baikor horri oinarri sendoa ematen diotenak:

- belaunaldi berrien euskaltasunean eskolak duen zeregina
- euskararen erabilera indartzeko eskolak eskain dezakeen berariazko laguntza.

Banan bana ikusiko ditugu, ondoren, faktore ohargarri hauek.

II.1.- BELAUNALDI BERRIEN EUSKALTASUNEAN ESKOLAK DUEN ZEREGINA

a) Haur erdaldunei euskara erakusten die eskolak

Askotan esan izan den gauza da, eta hainbat eratarata neurtua, honako baieztapen hau: eskolak irakats diezaieke, etxetik erdaldun diren ikasleei, euskara. Frantsesa, ingelesa, alemana edo beste edozein hizkuntza eskola bidez ikas daitezkeen modu beretsuan ikas daitezke, alegia, euskara ere. Hartarako bideak eta metodoak desberdinak izan daitezke noski; emaitzak ere ez dira beti maila berekoak izaten. Gure irakas-sistemari dagokionez badakigu adibidez, EIFE azterlanak lekuko, irakasteredu desberdin bakoitzarekin ikasleok zenbat euskara ikasten ari diren. Diskutigarria izango da noski, xehetasunetan sartuz gero, gaitasun-maila horiek noraino diren finko: ikuskizun dago, esate baterako, eskolaketa amaitu ondoren ikasle-garaietan ikasitako euskara horri, taxuz eta sarri praktikatzeko ez bada, neska-mutil horiek zenbatean eutsiko

dioten. Egia da ordea, nolana ere, eskola bidez posible dela euskara L2 moduan ikastea eta horretan halako maila bateko hitz-jarioa lortzea. Euskal eskolak berebiziko garrantzia izan dezake beraz (eta halakoxea du, izan, gaur egun) etxetik erdaldun diren neska-mutilak euskalduntzeko. Ez da hori txantxetako kontua, gaur egun Euskal Autonomi Elkartearen jaiotzen diren lau haurretatik hiru gutxi gora-behera egoera horretan daudela kontuan izanik.

b) Haur euskaldunei euskaraz irakurtzen eta idazten erakusten dio eskolak

Ikasleak beren hizkuntzan alfabetatzeko lekua izan ohi da, gainera, eskola. Neska-mutil euskaldunek (etxetik euskaldun direnek alegia) beren ama-hizkuntzan irakurtzen eta idazten ikas dezaten ez dago, bereziki, euskal eskola bezalakorik. Puntu honek ere garrantzi handia du. Gure hizkuntzak mende luzez izan duen moztade latzenetako bat horixe izan da: euskaldun gehien-gehienek ez dutela beren hizkuntzan irakurtzen eta, batez ere, idazten jakin. Orain, aldiz, jokaera galgarri hori baztertuz aukera sendoak eskaintzen ditu irakas-sistemak: etxetik ahoz euskaldun diren belaunaldi berriak idatziz ere euskaldun trebe bihurtzeko bideak eskaintzen ditu (edota, gutxienez, eskain ditzake) eskolak. Helduen munduan ezer gutxitarako da gaur egun, eta gutxiago itxuraz bihar-etzietan, ahoz ezezik idatziz ere menderatzen ez den hizkuntza. Lan-munduan bertan, lehen ez bezala, ofizio gehienetan izerdi gutxiago bota behar izaten da eta, horren orde, hizkuntza idatzia erabiltzera behartzen duten prozeduretan sarriago parte hartzen. Ezinbestekoa, hil ala bizikoa da beraz, euskaldungoarentzat, euskara idatziz ere ondo erabiltzen jakitea. Euskal eskolak, beraz, ohizko helburu pedagogikoez gainera eginbehar sakon eta luzera begirakoa du alor horretan.

c) ikasleen euskara osatu, jantzi eta aberastu egin dezake eskolak

Haur erdaldunak euskaldundu eta euskaldunak alfabetatzeaz gainera, bestalde, hirugarren eginkizun bat ere betetzekoa du euskal irakaskuntzak: ikasle horien euskara osatu eta aberastu egin behar du. Ikasleei ez die alegia oinarrizko euskaran soilik, ahoz eta idatziz, jarduten erakutsi behar, beste zerbait gehiagotan ere baizik: ikasleen hizkera-molde edo barietateak osatu egin ditzake eskolak, errejistro jaso-formaletarako hizkuntz aldaera landuagoak erantsiz. Etxe-giroan edo lagunartean hitz egiteko balio duen hizkera-moldeaz aparte forma jantziagoak ere erakuts ditzake, alegia, eskolak. Bestetan baino garrantzi handiagoa du gainera eskolak, gurean, hizkuntz aldaera landuago horiek eransteko orduan: motx eta eskas gabiltza, izan ere, forma landuago horiek transmititzen lagun dezaketen bestelako instituziotan. Eta eskolak, ondorioz, ia oso-osorik bere gain hartu beharra dauka, gaurkoz, egiteko hori.

Ez dezagun ordea, osatze eta aberaste-lan honetaz dihardugularik, gure egungo egoeraren oinarrizko ezaugarria begien bistatik galdu: ume askorentzat, etxetik dakarten euskara hain soil-erasana izanik, beren oinarrizko mintzagaitasunean egin behar dira osatze eta aberaste-saio nagusiak. Badugu arriskurik, alegia, ikasgelan giza enborraren atal eta azpiatalak oro, hezurrez hezur, buruz ikasi dituzten ikasle-multzo zabalak lortzeko baina aldi berean ikasle-talde horiek beren artean (txisteak kontatzeko, bart arratsean telebistan ikusitako filmea elkarri kontatzeko,...) euskaraz jardun ezinik izateko.

d) Eskola, euskal kultura eta herri-jakintzaren transmisio-bide

Hizkuntzak bezala, euskal kultura ere gurasoetatik seme-alabetara etxe-giroan eta hurbileko bizi-inguruan transmititu izan da nagusiki, mendez mende, orain gutxirarte. Bizimodu berriarekin ahultzen, galdutzen eta indargaltzen ari da ordea euskara etnokulturaren transmisio-bide hori ere, euskaldungoaren konpartimentazio- eta "intactness"-maila jaitsi ahala. Eta horra: gure herri-izatearen soziokulturazko oinarri eta hezur-mami izandakoak belaunaldi berriei erakusten, maitatzen eta errespetatzen laguntza ohargarria eskain dezake euskal eskolak. Pentsatzekoa ere bada, hain zuzen, azken urteotan hizkuntzari eskoletan hain sarbide zabala eskaini zaion honetan geure herri-jakintza baztertutxa utzi ez ote dugun: kantu eta ipuin, jolas eta agur, oroi eta gorazarre, kirol eta abarretan, barne-mundu oso bat da gizartekera berriak arras erasana dagoena eta euskal eskolak, zentzuz eratzen bada, era ohargarrian zurkaiztuko lukeena. Puntu honek garrantzi berezia du une honetan, irakasmaila desberdinetako kurrikulum-ak eraberritzen ari garen honetan.

e) Eskola, euskal jakitun-buruzagien mintegi eta lanbide

Beste zentzu batean ere laguntza bikaina egin diezaioke euskal eskolak belaunez belauneko kultur transmisiori: euskal konglomeratu etnolinguistikoaren ezaguera-kontuan pertsona jakitun eta jantziak sor ditzake bere ikasleen artean; eta, hori asko ez dela, euskal buru-langile, intelektual eta bidegileen lantegi edo ogibide bihurtu daitezke. Etnokulturazko ezaguera-trebezia horiek gabe ez da erraza buruzagi-talde berririk sortzea. Lanpostu-egitura hori gabe, bestalde, aukera murriztagoa luke bihar-etziko euskaldungoak intelektual-status horri eutsiko dioten kideak izateko. Beharrezkoak ditu noski

edozein hiztun-herrik, bizirik iraungo badu, bere buruzagi jantzi-jakitunak ere. Eta uka ezinezko laguntza eman dezake euskal eskolak helburu horren alde.

f) Ele biko (edo anitzeko) hezkuntzaren berezko doaiak

Hezkuntza elebidunaren aldeko apustua egina du, ezinbestean, euskal eskolak. Eta hezkuntza elebidun ororen on-gaitzak bereak izango ere ditu, gutxi-asko, euskal irakas-sistema honek. Askotan esan izan da, eta arrazoizkoa dirudi, buruhauste ugari eta zabalak sortzen dituela maiz elebiduntze-lan horrek. Hainbat urtez ia elebakar huts izandako eskola-molde bat burutik burura elebidun bihurtzeak eragozpen larriak gainditu behar izaten ditu alegia: hizkuntzaz behar bezala trebaturiko irakasleak behar, kopuru zabalean; era guztietako ikasmaterialen premiari aurre egin behar; ikasketa-programa eta irakaspideak ele biko molde batera berrantolatu behar; ...

Eragozpen eta traba horiek ez digute ahaztu arazi behar, ordea, mesedeak ere badituela hezkuntza elebidunak, hemen eta nonahi. Mundu zabalean bada aski erroturik dagoen hezkuntza-filosofia bat, puntu honi dagokionez kontuan hartzea merezi lukeena: hizkuntza baten ordezt mintzaira bi edo gehiago ikasi eta lantzeak osagarritzko errepide bat eskaintzen duela intelektuaren hedapenerako, emozio-ahalmena zabaltzeko, sentiera estetikoa lantzeko eta garapen komunikatibo-intuitiboa indartzeko. Ele biko hezkuntza aberasgarri dela dio, eta ez eragozpen, ikusmolde horrek.

Zaila da noski horrelako baieztapen zabaletan egiaren eta desioaren arteko hesi hutsalak non dauden jakiten. Eta ezin hasiko gara hemen, jakina, besteek

erdizka-edo ikusiabartzen dutena egia borobiltzat ematen. Punta-mutur horretara joatea bezain bidegabea litzateke, ordea, beste muturrean gelditzea ere. Eta badirudi, ondorioz, hizkuntza bat baino gehiago ikastea pertsonarentzat onuragarri jotzen den neurrian euskararenean ere baliozkotzat aitortu beharko dela, xehetasunak xehetasun, aldeko balioespen hori.

II.2. EUSKARAREN ERABILERA INDARTZEKO ESKOLAK ESKAIN DEZAKEEN BERARIAZKO LAGUNTZA

Euskararen alde eskolak hainbat gauza on egin dezakeela ikusi berri dugu. Gauza horien artean ez dugu aipatu, ordea, eskola-umeek euskara erabiltzen lagun dezakeenik. Goragoko puntu batean, gainera, eskolak zeregin horri begira dituen mugak, behaztopak eta ezintasunak aipatzen aritu gara. Zer esan nahi du honek: beste gauzetan bai baina euskararen erabilera kontuan ez duela eskolak eragimenik?

Ez da hori ere egia. Ezin esan liteke belaunaldi berrien mintzajardunean eragimenik ez duenik. Inpaktu hori ez da, ordea, askotan uste izan den neurri eta modukoa. Eragimen hori mugatua izan ohi da sarri, partziala eta, bere batezbestekoan, gizarte-bizitzan euskara-erdarek atxikitzen zaien nagusitasun-moldaeraren arabera. Partez edo osoz erdaraz bizi diren euskal belaunaldi berriok eskolaren laguntzaz bihar-etziko gizarte euskaldun baten ernamuin izango badira, eskolaz kanpoko sostengu serioak behar izango ditu saio zabal horrek. Hori da esan dena, ez besterik.

Eskolak berak, nolana ere, badu ekintza zabal horretan funtsezko zereginik. Eta ez da komeni, horrexegatik, bere eginbehar garrantzitsu hori gutxietsi edo isiltzea. Horretaraxe dator, hain zuzen, liburu hau: eskola-bide hutsezko berpizkundean sinesten dutenei eginkizun horren egiantzik eza agertzen saiatzeaz gainera, eskolaren eragimen-indar hori bere osoan adierazi eta azpimarratzera. Dena ezin da, eta gehiena ere agian ez, eskolaren esku utzi. Baina eskolak hizkuntz erabileraren berreskuratze-saioan dezakeena ez da hutsaren hurrengoa.

Teoria astunegietan murgildu beharrik ez dago hori erakusteko. Begiak urrunegi eman beharrik ere ez daukagu horretaz jabetzeko. Adibide praktikorik aski bada, bazterretan, horren testigantza eman dezakeenik. Eta bazter horiek etxean ditugu gainera, zorionez. Ikastetxe mailan, hainbat irakasleren talde-giroan edota, are miresgarriago dena, zenbait maisu-maistrak bere kabuz daraman ekinbide saiatuan, saiakuntza sendoak egiten ari dira eskola-umeen hizkuntz erabileran eragiteko eta euskara, klase-orduetako ikasgai eta ikasbide izateaz gainera, beren ohizko mintzajardunean txertatzeko.

(1) Hamers, J.F. eta Blanc, M. 1983. *Bilingualité et bilinguisme*. Bruxelles, Peierre Mardago.

(2) Fishman, J.A. 1990: "Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan", in *Euskal eskola publikoaren kongresua*. Gasteiz. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.